

G. BÄHR-EN EUSKAL ADITZARI BURUZKO LANAK ETA EZTABAIDAK

Legazpin, 1995.eko apirila

Ander Ros Cubas

1. G. BÄHREN IHARDUERA ETA LANGINTZA

Bähren obran bi garai, arras ezberdinak, bereiztu beharra dagoelakoan gaude. Hasierako sei urteak, 1920-25, ikasle urteak izan zituela esan dezakegu, ikasteari ekin orduko gure arteko maisu askoren parean ezezik gainean ere bazela eta ikasteari inoiz utziko ez ziola jakinaren gainean gaudelarik ere. 1923 arte ez zuen tamaineko lanik egin, azken hiruotan egingo zituen lan gehienak ordurako enkargatuak zizkioten; 1923tik 1925era jo ta ke lanean aritu eta gero, 1926. urtea, gure artean eman zuen azkena izan baitzen, gertakizun apartekorik ez dagoela ematen ez duen arren, inflexio urtea gertatu zitzaion gazte aleman legazpiarrari, heldutasun eta independentzia urtea, nolabait esateko. Norabide aldaketa bortitza jaso zuen orduan Bähr gaztearen ikasbideak. Arrazoiak eta motibapenak ez daude zeharo garbi baina zerbait susmatu eta esan dezakegulakoan gaude. Ordutik aurrera hasten da Bähren bizitzaren edo obraren norabide berri (zahar) bat, Euskal Herrira etortzeari utzi egiten dio —1929.ean eta 1930.ean eginiko bisita laburrak salbu— eta hortaz hain maite zituen bilketa lanak alde batera behar ditu, aurreko urteetan bildu materialaren azterketari ekiten diolarik. Euskaltzaindiarekiko, eta Azkuerekiko, harremanak hoztu egiten dira eta Urkixorekikoak, aldiz, estutzen.

1.1. Ihardueraren nondik norakoak

Aipatu hasierako urteetan euskara ezezik, linguistika eta lan egiteko metodologia eta ahalmenaz jabetu zitzaigun Gerhard Bähr, frantsesa, ingelesa, gaztelania, kimika,... e.a. ikasketa ofizialak zituenez gain, jakina. Oso gaztea genuen Bähr artean baina langile sutsu nekaezina, biltzaile metodiko esanekoa, ikasle zintzo aurreratua. Besteen, batez ere Azkueren, ekimenari gogotik plegatzen zitzaion laguntzaile edo morroia genuen gazte legazpiarra; ez inizatiba propioaren faltaz, alabaina, errespetuak eta ikasteko eta laguntzeko gose asekaitzak bultzatuta baizik. Nolabaiteko grina laino eta inuxente batek jota bezala zegoen euskararen ikasketen baranoan murgildua.

Bost urte horietan burutu zituen lanak edozeinek bizitza oso batean ez egitekoak bestekoak ziren, nornahik ezin burutzezekoak, lanei ematen zizkien kalitate eta zehaztasuna bide: Legazpiko aditza (1921, 1925.ean argitaratua), “Uñaño zein xirietaz” artikulua (1922), Schuchardten lanen itzulpena (1923, 1924; hilondoan argitaratuak), Erizkizundi Irukoitzeko lankidetzeta (1923, 1924; hilondoan argitaratua), Gipuzkoako Adiztegia (1923-1925-1926.ean argitaratzen hasi baino bukatu aurretik bertan behera utzia eta azkenik galdua), Euskal Hiztegi Etimologikoa (1924.ean hasita; bukatu eta publikatu gabea, galdua antza), Azkueren Latsibi nobelaren itzulpena (1924), Linguistika klaseak Bilbon (1923 ?), lexiko bilketa (1921-1925; sekula publikatu gabea, eta seguruenik galdua). 1921.eko urrian Euskaltzaindian irakurri zen baina ezagutzen ez dugun beste lantxo baten berri ageri da Akademiaren aktetan: “*Bähr, gazte azkarraren idazki bat, gogoz entzun du Euskaltzaindiak*”, agian gero agertuko zuen lanen bat da edo ezezaguna eta galdua zaigun Bähren bigarren lana, Legazpikoaren ondotikoa. Lan guzti hauek, gogoratu beharra dago, oporretan egitekoak zituen, gero, udaldia iragandakoan, Alemaniatik ezin egitekoak asko, edota lanari eta ikasketei ebasten zizkien txolartetan burutzezekoak, besteak.

Euskaltzaindian urgazle izendatu zutenetik, luzatu zioten enkargu piloari, tamainaz eta zailtasunez, kupidagabe deritzagu orain. Hasteko Schuchardten lanak alemanieratik itzultzea agindu zioten, *Baskischen Studien* lehenbizi, Sarako euskarari buruzkoa gero, eta “Baskischen” zeritzan sail osoa, azkenik. Modu adierazgarri honetan eskaini zion gutunez Azkuek: “... *lan ori ¿nork egin? nori eman arazo ori? Euskaltzain guztiok ao batez zerorren izena aitatu genuen eta orregatik zerorri eskaintzen dizut*”. Euskaltzaindiaren erabakia hiru egun ondoren hartu zen (1922/214): “*Euskaltzaindiak Gerhard Bähr jaunaren euskaltasuna ikusirik, gazte azkar oni zerbait diru ematea erabaki du, euskal-lanetan indar aundiz jardun dezan. Diru ori bide, lan bat egotzi lekiyoke, ta Euskaltzaindiaren gogokoa auxe litzake: Schuchardt'en Baskischen Studien españeratu*”. Ageri denez, estraineko itzulpen enkargua, 200 pezetaz ordaindua, behin behinekoa izan zen, nolabait gazteak zer gehiago egin zezakeen Euskaltzaindiari begitandu bitartean. Itzulpenaren lanaren tamaina gaitzaz jabe gaitzen gogoratu behar da ordurako ezaguna zela Schuchardt itzultzeko eta are irakurtzeko zailtasuna, Urkijok, esaterako, edota Irigarayk, ondo baino hobeto testifika zezaketan bezala. Bährek ere lehenengo momentutik lanaren zailtasuna ikusi eta apaltasunez aitortu zuen. Gaztelania behar bezala menperatzen ez zuela esanez, besteren batek bere itzulpena zuzentzea eskatzen zion Azkueri: “... *hartako gertu nintzake, baldin gai banendi (...) besteren bat idoro ezpadadi, itzulpena sayatzeko aukeran naukazute ni, edozein gauzerako legez. Nahi nuke, baño, hangoren batek nere lantxo orraztutea, elezketaren duin izan dadin*”.

Erantzun hori jasota eta hilabete eskasera lehenengo itzulpenean ezezik bigarrean ere hasteko agintzen dio Azkuek: “*Baskischen Studien itzuli ta Saran egin zituan ikasmenak itzultzen azi zaitzke*”. Itzulpen lanean gogoz jarri zen Bähr, bi aste baizik paseak ez zirelarik, lehendabiziko frogak bidali baitzizkion